



HAURRESKOLAK PARTZUERGOAK GELA BERRI BAT ZABALTZEA UKATU DIO BIZKAIKO HAURRESKOLA BATI

Idatzi honen bidez Haurreskolak Partzuergoko haurreskola batean eman den egoera bat salatu nahi dugu eta honen inguruan informatu nahi zaituztegu.

2020ko urtarrilaren 29an EH Bildu talde parlamentarioak Hezkuntza sailburuari zuzendutako "Idatziz erantzuteko galderak" baten ondorioz izan dugu Bizkaiko haurreskola batean gertatu denaren berri.

Galdera hau arrazoi konkretu baten ondorioz egin du EH Bilduk: Haurreskolak Partzuergoak haurreskola honi **gela bat gehiago zabaltzeko aukera ukatu egin diolako** eta, ondorioz, matrikula eskaera egin zuten 7 familia kanpoan gelditu dira. Hona hemen gertakarien azalpena:

Herri honetako Udal Gobernuak 2019ko azaroan beste gela bat irekitzeko eskaera egin zion Haurreskolak Partzuergoari. Izan ere, haurreskolak duen eskaintza baino 7 matrikulazio eskari gehiago egon ziren urriaren 1etik 9rako aldian. 0 urteko haurrak ziren guztiak, beraz, aurten eta hurrengo ikasturtean gela bat zabalik mantentzea bermatzen zuten eskari hauek (ikasturtean zehar eman zitezkeen beste matrikulazio batzuk kontutan izan gabe).

Udal gobernuak egin beharreko kudeaketa administratiboak prest zituen zuzkidura ekonomikoak bideratzeko. Haurreskolak Partzuergoko arkitektoak ere begi onez ikusi zituen egin beharreko lanak gela berria irekitzeko. Bide batez, haurreskolaren azpiegitura hobetzen zituzten egokitzapen horiek.

Gela berria irekitzeko prozedurak bide onetik zihoazela zirudien arren, hara non, udalak ezezkua jaso zuen Haurreskolak Partzuergoaren aldetik. Haurreskolatik 3 kilometrotara (herritik kanpo) dauden haurreskoletan plaza hutsak zeudela, 5 ume behar zirela gutxienez (7 eskaera egon arren), haurreskolari espazioa ez kentzea eta erabaki hau Zuzendaritza Batzordeak eskaintza ez zabaltzeko onartu zuela argudiatu zuen enpresak.

www.steilas.eu

Araba 📞 945 14 11 04
araba@steilas.eu

Bizkaia 📞 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eu

Gipuzkoa 📞 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eu

Nafarroa 📞 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eu



HAURRESKOLAK PARTZUERGOAK GELA BERRI BAT ZABALTZEA UKATU DIO BIZKAIKO HAURRESKOLA BATI

Ulertezina eta lotsagarria den erabaki honen ondorioz, 7 haur eta familia hauek beraien herriko haurreskolatik kanpo utzi dituzte 2 ikasturtez. Familia hauek Haurreskolak Partzuergoaren eta eredu publiko eta gertukoaren aldeko apostua egin zuten arren, akats larria den erabaki honen ondorioz izan duten alternatiba bakarra herriko haurtzaindegi pribatuetara jotzea izan da. Azken finean, familiek herrian geratzea lehenetsi dute. Haurreskolak Partzuergoan aukera izanda, sekulako zentzugabekeria da Administrazio publikoak familiak eta haurrak herriz aldatzera edota eredu pribatua aukeratzera behartzea.

Beste behin, eta zoritxarrez, Haurreskolak Partzuergoa da galtzailea, familiak dira galtzaileak, herriak ere herrikoa den azpiegitura bat hobetzeko aukera galdu du eta, nola ez, eskola publikoa ere galtzailea da. Hau guztia Haurreskolak Partzuergoa eta Zuzendaritza Batzordearen oniritziarekin. EAJ-PNV-ren eta Eusko Jaurlaritzaren politika pribatizatzaileak agerian, berriz ere: plaza publikoak bermatu eta indartu beharrean, pribatuak hauspotu eta babestu.

Agintarien ahotan entzuteaz aspertu garen "familien erabakitzeko eskubidea" non dago familia hauen kasuan? Ala, bestelako eredu segregatzaile, merkantilista eta pribatuen alde egiten dutenen eskubidearen defentsari buruz ari dira, akaso? Bada, agian hori da erabaki honen eta antzerakoen atzean dagoena, eta argi eta garbi uzten ari dira.

STEILAS sindikatuak argi utzi nahi du Haurreskolak Partzuergoko gerente ohia den Maite Larrañagaren babesarekin Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeak ia-ia ezkutuan hartutako erabaki hau axolagabekeria hutsa dela. Haurreskolak Partzuergoko etorkizunaren, familia horien apustuaren eta Euskal Eskola Publikoaren kontrako eraso larri hau salatu nahi dugu lerro hauen bitartez.

HAURRESKOLAK PARTZUERGOA ETA EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN DEFENTSAN BORROKAN JARRAITUKO DUGU!

2020-2-20



steilas

www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus